

ELKARRIZKETA

Diskurtso mota bat da elkarrizketa, solasaldia; bi pertsonaia edo gehiagoren arteko mezuak trukatzeari du helburu, beraz hitza **txandaka** hartzen dute.

Pentsamenduak, sentimenduak eta desioak komunikatzen ditu. Ahozkoa eta idatzia izan daiteke.

Kazetariak elkarrizketa asko egiten dituzte eta ipuin eta antzerkietan ere askotan agertzen dira.

❖ MOTAK:

A) ELKARRIZKETA ZUZENA: Pertsonaiek esandakoa bere hartan, ezer aldatu gabe jasotzen du.

Nola idatzi:

- ✓ Pertsonaia batek hitz egiten duenean, beste lerro batean idatziko dugu, **marratxo bat aurretik jarriaz**.
- ✓ Nork hitz egin duen jakiteko **esandakoaren ostean**, eta beste marratxo batez hasita, argituko dugu (beharrezkoa bada soilik).

Adibidea:

Jon eta Ander kalean aurkitu dira eta Jonek galdetu dio Anderri:

- Nork moztu dizu ilea?
- Ez dakit! Horrela esnatu naiz – **erantzun dio Anderrek**.
- Lasai! Oso moderno zaude! – **esan du Jonek**.

Eta biak parrez hasi dira.

B) ZEHAR ESTILOA: Pertsonaiek esanikoa narratzailearen hitzetan azaltzen da kontaketa.

Nola idatzi:

- ✓ Ikusten den bezala idazleak bi pertsonen arteko elkarrizketa berak kontatzen du.
- ✓ Puntuazio markarik ez eta interjekzio gutxi dago. **Testua jarraian dago idatzia**.
- ✓ Pertsonaien hitzak perpaus nagusiarekin lotzeko **(ea), -(e)la, -(e)n**, erlazio hizkiak erabiltzen dira.

Adibidea:

Jon eta Ander kalean aurkitu dira eta Jonek ilea nork moztu dion galdetu dio Anderri. Honek nork moztu dion ez daki**ela** eta horrela esnatu **dela** erantzun dio. Jonek lasaitu du Ander oso moderno dago**ela** esanez eta biak parrez hasi dira.

Nola pasa estilo zuzenetik zehar estilora:

Estilo zuzena: - Noiz etorriko da? – galdetu du losuk.

Zehar estiloa: **Ea** noiz etorriko **den** galdetu du losuk.

1. ARIKETA: Idatzi estilo zuzenean elkarrizketa hauek:

a) Oparia bihar emango diola esan dio Mariajek Kristinari.

Erantzuna: - Kristina! Oparia bihar emango dizut. – esan dio Mariajek.

b) Josebak etxe hori gurea den galdetu digu eta guk gurea ez dela erantzun diogu.

1

2

Erantzuna: **Pista!** 2 marratxo edo gidoi erabili behar dituzue.

c) Irakasleak isilik egoteko eta etxerako lanak ateratzeko esan du.

Erantzuna:

d) Unaik oporrek noiz diren galdetu du eta Anek abenduan direla erantzun dio.

1

2

Erantzuna: **Pista!** 2 marratxo edo gidoi erabili behar dituzue.

e) Irakasleari azterketarik ez dugula egin nahi esan diogu, baina berak asteartean izango dela erantzun digu.

Erantzuna: **Pista!** 2 marratxo edo gidoi erabili behar dituzue.

Errepasatu:

- Pertsonaiek beraiek hitz egiten dute.
- Puntuazio markak ongi erabili ditut.
- Interjekzio (aupa!, gora!, aizu!, kontxo!...) egokiak erabili ditut. Begiratu link honetan eta erabili.
- Interbentzioen hasieran marratxoa dago.
- Bakoitzak esanikoa lerro ezberdinetan dago.

2. ARIKETA: Idatzi estilo zuzenean pertsonaia hauen elkarrizketa. Sarrera bat egin dezakezu pertsonaiak lekuan kokatzeko.

Ainarak ez daki zer ordu den eta amari galdetu dio. Amak erlojurik ez daukala eta aitari galdetzeko esan dio. Aitak, arratsaldeko laurak direla esan dio. Ainarak lagunekin parkera joan nahi du eta aita konbentzitzen saiatu da. Ea nolako elkarrizketa duten. (10 lerro gutxienez)

Errepasatu:

- Pertsonaiek beraiek hitz egiten dute.
- Puntuazio markak ongi erabili ditut.
- Interjekzio egokiak erabili ditut.
- Interbentzioen hasieran marratxo dago.
- Bakoitzak esanikoa lerro ezberdinetan dago.